



ASKE Hispanitatearen eta Guardia Zibilaren patroia- egunaren kontra mobilizatzeko deia egin du

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 10/10/2023

Urriaren 12an Hego Euskal Herriko hainbat txokoetan manifestazioak antolatu dituzte.

Urriaren 12an Espainiar estatuak bere jai egun nazionala ospatzen du urteoro Amerikako kolonizazioan duena jatorria eta baita ere Guardia Zibilaren patroia-eguna dugu hau, haibat ekimen militaristak antolatzea dakarrena estatu espainolean, esaterako desfile militarrek besteen artean.

ASKE antolakunde antirrepresiboa salatu duenez “Espainiar estatuak Euskal Herriaren aurka daraman zapalkuntza nazional eta sozialaren islaren eta goraipamenaren eguna dugu urriaren 12a, urteko beste edozein egunetan baino modu argiagoan geratzen dena” eta Guardia Zibila seinalatu du “Euskal Herriaren askatasunaren alde borrokatu dutenen odolez zikinduta dituztenak, eta Euskal Herri Langileak pairaturiko zapalkuntza bermatzen duten guardia zibilak goraipatzen eta ohoretzen dituzten eguna ere bada”. Hala ere, ez da mugatu polizia talde honi, eta besteen funtzio errepresiboa ere azpimarratu du “honekin batera, beharrezkoa da zipayoek, foralek edota jendarmeez ere Euskal Herrian lekuri ez dutela argi uztea. Izan ere, guardia zibilek bezala, atxiloteten bitartez, mehatxuen bitartez, torturaren bitartez... Euskal Herriko zapalkuntza nazionala eta soziala bermatzen dute egunero, espainiar eta frantziar estatuen mesedepean lan egiten duten bitartean”, Era berean, jai egun inposatu honen aurrean borroka eguna bihurtzeko deia egin dute Euskal Herrian argi uzteko “ Euskal Herriko langileok kalera atera eta espainolak ez garela argi uzteaz gain, langileok ozen eta irmoki aldarrikatzea ez dugula esplotazioan oinarritzen den inolako sistemarik onartuko”.

Pasaden urtean baita ere manifestazioak antolatu zuten hainbat eskualdetan eta errepresioa markatu zuen egun hau izan ere Iruñeako manifestazioan tensio uneak bizi izan ziren Nabarrerian probokatzailer bat eta manifestarien artean, eta gertakari hauen harira 2 pertsona atxilotu zituzten, gorroto delitu bat egotziz. Urte honetan ASKE-ek salatu duenez baita ere indar errepresiboen partetik jazarpena egon da Mungiako manifestaziora deitzen zuen propaganda politikoa ipintzen hari zen jendearen kontra konkretuki, 7 pertsona identifikatuz eta materiala konfiskatuz.

<https://eh.lahaine.org/aske-hispanitatearen-eta-guardia-zibilaren>